

Garraio-proiektuen, garapen iraunkorreko eta lurralde-kohesioko kudeatzailea

Lanpostuaren eginkizunak:

Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiak gainbegiratuta, Euroregionioko esku-hartzeko eremuetako eskualde arteko eta mugaz gaindiko lankidetzak-proiektuak kudeatzea, bereziki garraio, ingurumen, lurralde-antolaketa arloetan eta Euroeskualdeko Plan estrategikoaren 3. ardatzari lotutako beste eremu batzuetan. Halaber, mugaz gaindiko behatzeko sistemaren garapenean eta mugaz gaindiko datu eta estatistiken erabiltzean laguntzea, erabakiak hartzeko eta Euroeskualdeko politikak koordinatzeko tresna garrantzitsu gisa.

Hirugarren ARDATZA: GARAPEN IRAUNKORRA ETA LURRALDE-KOHESIOA

Helburua mugaz gaindiko lankidetzak bultzatzea da, trantsizio ekologikoaren, partekatutako espazioen eta baliabide naturalen kudeaketaren, baita garraioaren arloetan ere. Euroeskualdea lurralde iraunkor, elkarri lotuago eta elkartuagoa bihurtzeko.

Jorratu beharreko gai nagusiak hauek izango dira:

- Mugaz gaindiko mugikortasuna
- Klima-aldaketaren aurkako borroka
- Lurraldearen eta naturguneen antolamendua
- Turismo iraunkorra

Lanpostuaren jarduerak eta eginkizunak (Euroeskualdeko hiru lan-hizkuntzetan garatzeko: euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez)

• Euroeskualdeko Plan Estrategikoak ezarritako arloetan proiektu euroerregionalak kudeatzea eta bultzatzea :

- *Plan estrategikoaren 3. ardatzeko gaiei lotutako euroeskualdeko proiektuak koordinatzea, dinamizatzea eta kudeatzea: garraioa mugaz gaindiko mugikortasuna, ingurumena, mugaz gaindiko behaketa eta estatistikak, lurralde-antolamendua eta lehentasunezko beste eremu batzuk.*
- *Proiektuen aurrekontu eta administrazio jarraipena.*
- *Bazkideak dinamizatzea eta bazkideen ekarpen teknikoak eta instituzionalak koordinatzea.*
- *Ekitaldiak, mintegiak, bilerak eta zuzendaritza-batzordeak antolatzea, lankidetzak eta proiektuen ikusgarritasuna bultzatzeko.*

• Europako proiektuen kudeaketa eta dinamizazioa:

- *Martxan dauden Europako proiektuak dinamizatzea eta kudeatzea, eta Europako etorkizuneko proiektuak idaztea, besteak beste.*
- *Euroeskualdeak bazkide edo taldeburu gisa parte hartzen duen Europako egungo proiektuak ezartzea, dinamizatzea eta haien segimendua egitea.*
- *Euroeskualdearen ardatz estrategikoekin bat datozen Europako proiektu berriak egitea (Interreg. PONTEFA deialdiak, etab.).*
- *Hautagaitzak koordinatzea, bazkideak bilatzea eta eduki teknikoak, finantzarioak eta kronogramak garatzea.*
- *Europako adierazleen monitorizazioa eta entregagaien kudeaketa. Txosten teknikoak eta administratiboak idaztea kudeaketa-agintarientzat.*


• **Lan-taldeak kudeatzea eta dinamizatzea lurralde jasangarriaren eta garraioaren arloan:**

- Lan-taldeak kudeatzea eta haien jarraipena egitea Euroeskualdeko talde tematikoak dinamizatzea eta koordinatzea.
- Prestaketa logistikoa eta gai-zerrendak, aktak eta bertaratze-orriak idaztea.
- Bide-orri partekatuen jarraipena eta erakunde-arteko koordinazioa.
- Euroeskualdeko marko estrategikoen emaitzak zabaltzea.
- Mugaz gaindiko datu eta estatistiken inguruko ekintzak garatu eta koordinatzea.

Lanpostuaren bigarren mailako jarduerak eta zereginak:

- Ardurapean dituen proiektuen jarraipen finantzarioa egitea, administrazio-eta finantza-arduradunarekin koordinatuta (bereziki, gastuak exekutatzeko edo gastuak ziurtatzeko aldietan).
- Organoen kudeaketan parte hartzea (batzarrak, mahaia, lizitazio-batzordeak, etab.) eta Euroeskualdeak antolatutako bilerak edo ekitaldiak.
- Garraioaren eta garapen iraunkorraren arloetan, mugaz gaindiko bilakaerari Europako programei jarraipena egitea.
- Espedienteen oharak, txostenak eta jarraipenak idaztea.

Hierarkia-postua:



Funtzio-harremanak:

• **Euroeskualderen barruan:**

- ZZN-arekin (Eguneroko harremana Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiarekin. Zuzendaritza nagusiak jarraibideak ematen ditu eta dokumentu administratibo eta teknikoak sinatzen ditu).
- Eragileekin (*proiektu-kudeatzaile guztiekin eta administrazio eta finantza departamentuarekin harreman transbertsalak*).
- Aukeratutako ordezkariekin (*Batzar Nagusiako eta Batzar Exekutiboko kideak*)

• **Euroeskualdetik kanpo**

- Euroeskualdearekin harremana duten tokiko erakundeekin (Akitania Berriko Eskualdeko Kontseilua; Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, etab.).
- Euroeskualderekin lurralde lankidetzaren arloan *proiektu bat aurkeztu edo zuzendu nahi duten persona guztiak, empresa pribatuak eta elkarteak, Akitania Berria, Euskadi, Nafarroa proiektuen*

deialdiaren edo Elkartre estrategiko eta ikasleen esparruan (informazio eskaera, diru-laguntzaen esleipenaren jarraipena)

Eskakizunak:

• Gaitasun teknikoak:

- Zientzia Politikoetan, Zuzenbidean (publikoan eta europarrean) edo Ekonomian hasierako prestakuntza izatea.
- Prestakuntza espezializatua (edo esperientzia zabala) Europako politiketan, EBren finantzaketan, mugaz gaindiko lankidetzan, lurralde-garapenean, garraioan eta politika publikoen proiektuen kudeaketan.
- Ingurune instituzionalaren edo tokiko agintarien erabakiak hartzeko prozesuak ezagutzea.
- Administrazioen eta bazkide publikoen funtzioak eta eskumeak ezagutzea, bai Frantzia, bai Euskadin eta Nafarroan.
- Idazketa administratiboa menderatzea.
- Aplikazio informatiko profesionalak eta ofimatika menderatzea.
- Europako politikak eta programa ondo ezagutzea. Batez ere, INTERREG POCTEFA programa ezagutzea.
- Proiektuak kudeatzeko, bilerak zuzentzeko eta hitzartze-prozesuak gauzatzeko trebetasunak izatea, kulturarteko testuinguruan.

• Pertsonen arteko trebetasunak:

- Komunikazio, negozioaziora eta bitartekotza-teknikak menperatzea.
- Sare profesional bat garatu eta mantentzea.
- Taldean lan egiten eta bilerak lideratzeko gaitasuna.
- Hizkuntza-eskaerak: frantsesa eta gaztelania (B2 maila beharrezkoa da).
- Euskararen menderatzea bereziki baloratuko da.
- Ingelesaren ezagutza baloratuko da.
- Pertsona antolatua, zorrotza eta metodikoa izatea.
- Eraginkorra eta errektiboa izatea.
- Analisi-eta sintesi-gaitasuna izatea.
- Gaztakak arbitratzeko eta konpontzeko gaitasuna.
- Taldean lan egiteko gaitasuna kulturarteko testuinguru batean.
- Autonomía eta ekimen-gaitasuna (ideiak aurkeztean oso proaktiboa izatea.)



Estatutu esparrua:

Maila: A

Eremua: Administratiboa

Lan esparrua: Lurralde-agregatua

Jarritako baliabideak:

Ofimatika duen ordenagailu bat

Hainbat software

Imprimagailua, fotokopiagailua eta telefonoa

Praktikaren baldintzak eta mugak:

- Lanaldi osoko kontratua
- Ordu-tegi erregularra, zabalatasun aldakorarekin, funtzioarekin loturako betebeharren eta jarduera-punten arabera (proiektu komunitarioa)
- Zorroztasun profesionala, sekretu profesionala eta konfidentzialitatea-betebeharra
- Zerbitzu publikoaren zentzua
- Erabilgarritasun handia
- Hainbat espediente aldi berean kudeatzea

2025eko apirilaren 14an idatzia

